


Isabel de Lobiano,

**LAGUN BATEK GOMENDATUTAKO
"HISTORIA DE UN RAPTO" IRAKURTZEN
NEUALA, PROTAGONISTETAKO BAT
ERMUARRA ZALA JAKITZEERAN, HA
POZA NIRIA! OIÑ DALA 400 URTE BIZI
IZANDAKO ANDRA AUSART HONEN
MAITXASUN ISTORIO EDERRAK ORDUKO
JERARKIA DANAK ASTINDU ZITXUAN,
CASTILLAKO MARIA ENPERATRIZ BERAK
HARTU BIHAR IZAN EBAN PARTE AUZIA
ZUZENDU AHAL IZATEKO. OSAGAI
GEHIXAGORIK BIHAR ISTORIXA
HONETAN SARTZEKO?**



Juan Lopez de Lobiano eta Catalina de Ibase-taren alaba bakarria izan zan Isabel eta leinu aberats baten ondariaren jabia izatera izendatua euan. Jose Antonio Azpiazu historiagilliak hain entretenigarri eitzen jakin daben maitxasun eta intriga istorixo honen bestekaldeko protagonistak azkoitxiarrak ziran, Idiaqueztarrak, eta Pedro seme bigarre-na maitemindutakua. Bederatzi urte besterik ez zitxuala, Isabel Mutrikuko *Areizieta* monastegian sartu eben, bere maillako ezkongai batek bihar daben heziketa jaso dezan, ama-amamak pretendienterik egokixena topatzen zotsien bitxartian. Iñork espero ez zebana zan Isabelen bihotzak dana esanda ekala: monastegira ezkutuan etorten jakon

gazte haren akorduakin betetzen zitxuan han barruko ordu astunak. Bere Pedro etxe onekua zan, baiña ez zan maiora-zgua eta horri etxeakuen ezkontza asmuen kontra zoian. Iñork euren alde jokatu eza dabela konturatuta, gazte biek Isabel handik etartzeko plana jorratu eben, Ana de Urrutia Isabelen monja laguna konplize hartuta.

1596ko martxuaren 28xa Mutriku aldian baketsu argitsu bada be, illuntzerako gauziak beste aide bat daka. Monastegian hiru urte pasatxo gordeta dauan neska gazte-txuak, atian giltzak ipinitxa dagozala aprobetxatuz, kanpora eitzen dau: zain ditxuan bi gizonen laguntzarekin zaldi batera igo eta trote! Hango kanpai hotsak ez daka amairik Isabelen martxiaz konturatu

diranian konbentukuak! Haren deira herritar guztixak batu eta jakitzeeran neskata bahituta daroiela, lapurrei segika hasi dira. Zaldi gainian urtendakuak zatixa aurretik doiaz, baiña kostata dabiz; Isabelek ez dau domiñatzen kaballo gainian ibiltziori eta nahi baiño astiruago juan bihar. Mutrikuko jendiak, or-dia, ondo ezagutzen dauz ha-rek bidiak eta oiñazian eitzen usauta egoteeran, aurria hartu eta zaldunak atrapatzeko hur-ran dagoz. Estu eta larri eitzen dabe iheslarixak Mutri-kuko Kalbarixotik Debako *Sasiola* konbenturartekua; baiña oindiñok beste oztopo bati eiñ bihar dotsie aurre euren buruak salbu ikusi aurretik: Deba erreki zeharkatu biharra dago. Txalupa bat dake zain; Isabel, Pedro, honen

aitxa eta lehengosuk igotzen dabe gainera. Gainontzeko lagunak igeri eiñaz ausartzen dira errekan sartzen. Ahor ba, mutrikuarrak be erreka ertze-ra ailegau dira, garraxika eta juramentuka, segika ekarri ditxuezenak atrapau guran. Baiña ezin eta amorruren amorru-z harrika hasten jakuez. Txalupia ixa-ixa bestekaldian dago, baiña igarixan doazenei itzelian kostatzen jakue beste ertza hartzia, errekiak indar haundixa dakar eta. Harri batek Domingo de Erquiciaren buruan azertatzen dau; zora-biatu, ur larregi iruntzi eta iñork laguntzera ailegau orduko danen begixen aurrian itxotzen da.

Pena ikaragarrixakin segidu dabe bidaiarixok. Errekia pasau ostian eta behin Lastur-reko lurretan sartu dirala ez




URRETA

burdindenda

* Etxea	* Giltzak
* Tresneria	* Zerrailgintza
* Brikolaia	* Kit altzariak
* Rielak	

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMOA



ELUR

ESTETIKA-EDERGINTZA

Aldapa 1 943 17 60 52

- Depilazioa
- Elektrologia
- Gorputz eta Aurpegirako tratamenduak
- Masajeak
- Pedikura
- Manikura (parafinarekin)
- Solariuma

dago ezerren kargurik, beste jurisdiziño bat da. Mendiz-mendi Zestuaraino; *Lili* jauregixan afaldu eta Azkoitira zuzen, Pedoren etxera (gaur e-gun *Etxe Beltza* lez ezagutua). Gaba ondo sartuta dago ordu-rako.

Hurrengo egunian, prisaka eta herriko parrokuaren desadostasunarekin, ezkondu eñ ziran. Hiru seme-alaba euki zitxuezen, baiña zazpi urtera Pedro hil zan. Isabel hil arte izango zan Pedro de Idiaquezen alarguna.

Isabelen fameliariak bere ohorea tatarraztua izan zala eta auzitan sartu zitxuan Idiaqueztarrak: alaba gogoz kontra ateratzia monastegitik, gauza larria zan neurrixan, larritik ordaindu biharko eben eta amaitxu eziñeko tira eta saka gogor baten sartu ziran abizen bixak.

Isabel de Lobianoren ahaidiei asko kostatu jakuen ha bere gogoz juan zala ulertzia. Familien arteko arazo pertsonal eta pribatua zana, Estatu eta Elizako jerarkia gorenetera aillegau zan. Momentu horretan ez zan iñundik iñora komeni fameli eta banduen arteko iskanbillarik eta auzi honek ez ekan usain onik. Urak ubidian sartzeko asmoz, Maria Enperatrizak Castilla-ko Errege Felipe II.aren ahiz-



pak hartu bihar izan eban parte, Lobianotarrei "lapurtutako" ohore eta prestigiua eskuratu emoteko barriro.

Isabelen dotia jasotzen dabene eskrituran Ermuko *Zubiatur* dorretxia aitzatzen da, Isabelen jaioterria ziur asko kontutan izanda, Goienkaleko *Lobiano* jauregixa, bere osaba Franciscok beranduago eraiki ebala. 1704. urteko fogeretan Erdiko kaleko zubi aurreko dorretxiaren ugazabak Lobiano (Idiaquez) dira, gerora *Antonatxa* lez ezaututakua eta gaur egunian *Herga* tabernia

dan lekuan.

Idazti hau janzteko bi irudi aukeratu ditzugu: bata ihesian juandakua ordu gixitxan eñdako ibilbidiaren mapia, artikulua burutzeko erabilli dogun Jose Antonio Azpiatzuren liburutik hartutakua; bestia Francisco de Mendietak 1607 urtian margoztutako ehuna, Bizkaiko Foru Aldundiko jauregixan erakusgai dauana. Begoñan ospatutako horrek ezteiotan, deigarrixak dira andren buru gaiñeko zorkiak, tokaduak.

Ezkongabiak hain barik doiaz eta alargunak adar barik lotzen ditzuez. Zenbat eta aberatsago adarrori haundixaua, harria da. Herri bakoitzak bere eria ekan linuzko zapixori lotzeko.

Luze juan da gauzia, baiña hau laburpen bat besterik ez da. Liburuan zatixa gauza gehixao topauko dozuez. Eta artxibuetara joteko premiña barik Udal Liburute-gixan bertan dakazue, *Lobiano* jauregixaren onduan. Gustura irakurri baietz!

Estibalitz González

maitxasuna edozerren gainetik

FAMILIA, BIKOTE eta BANAKAKO TERAPIA

OREKA PSIKOLOGIA

CHARREMAN ARAZOAK
— bikotearekin
— familiarekin
— kideekin

JARRERA ARAZOAK

ESKOLA PORROTA

ANTSIETATEA, DEPRESIOA, ELIKADURA ARAZOAK

miriam mujika 676 61 70 55 AURRERA EDIFIZIOA
ainhoa basurko 615 70 37 25 URTZAILE KALEA-1.

Solozabal estankoa

torrekua z/g
Tel/Faxa. 943 17 07 33
fax publikoa

CONIL (CADIZ)

Apartamendua alokagai: igerileku eta aparkamentu pribatua

Egonaldi luze eta laburretarako

653 73 34 57